

www.unescoetxea.org

2009

unesco etxea txostena

RUPER ORMAZA LEHENDAKARIA • MIKEL MANCISIDOR ZUZENDARIA

2009. urtea urte zaila izan da guztiontzat. Zaila izan da euskal gizartearen, negozioa itxi behar izan duten, larri-larri dabilzan edo langile-kopurua murriztu behar izan duten enpresentzat; eta zaila izan da, batez ere, lana galdu dutenentzat edo hil-bukaeran gasturik oinarrikoenak ordaintzeko estu-estu dabilzanentzat.

Guk ere gerrikoa ondo estutu behar izan dugu; gastuak murriztu eta lehendik ere guztiz estututa zeudela ematen zuten kostuak gehiago estutu ditugu. Baina, aurten ere, gure MISIOAn lanean jarraitzen dugu, eta hori da benetan axola duena. Aurten, gainera, egoitza berria inauguratu dugu, Bizikidetasun plazan, Bilboko Udalarekin egindako hitzarmen bati esker.

Munduko beste gizarte batzuetan, kostua are handiagoa izan da. Murrizketak egin dira garapenerako nazioarteko lankidetzarako aurrekontuko partidetan, eta Milurtekoaren Garapen Helburuak betetzeko (edo ez betetzeko) aurreikuspenak atzeratu dira, beste behin ere. Horrek erakusten du munduko krisiaren alderdik latzena. Badakigu iparra-hegoa zatiketak ez digula azaltzen mundu berri hau, dagoeneko; baina egia da, halaber, 2009an, munduan 1.000 milioi lagun baino gehiagok jasan duela gosetea. Eta hori da krisiaren daturik txarrena; eragotz daitekeena eta, hortaz, onartezina dena.

Hala ere, krisia ez da soilik zenbakietan neurtzen: balioei eta gobernagarritasunari loturiko gaia da, batez ere. Merkatuetan –finantzarioetan eta finantzario ez direnetan– eta gobernu globalaren beste arlo batzuetan baliorik eta gobernagarritasun orokorrik ez egotea edo balio gutxi eta gobernagarritasun txikia izatea da gertatzen zaigunaren zati baten kausa.

Baina ez dezagun urrunean bilatu. Guk geuk ere, diru gutxi-asko eta prestakuntza dugun herritarrok, badugu erantzukizunaren zati bat: gizartearen kontuan hartuta era arduratsuan kudeatzen al ditugu gure baliabideak, gutxi izan arren? Gogoeta egin al dugu inoiz gure kontsumoaren zentzuaren, egiten dugun kontsumoaren neurriaren, eta, oro har, gizartearen eta ingurumenean dituen ondorioen gainean? Interesa agertzen al dugu munduko gobernantzaren gainean, edo nahikoa dugu gure eguneroko kezkek hartzen duten eremu pribatu hurbilekoa kudeatzearekin? Parte hartzen al dugu munduko gobernantza delako gauza bitxi horretan, arauak, balioak eta printzipioak proposatuz, ala onartu dugu urrutiko eta besteren zerbeit dela, gure aukeretatik haratago dagoela eta beste batzuek arduratu behar dutela horretaz, nahiz eta ez jakin ondo nor, nola eta zergatik? Prest al gaude onartzeko krisia ez dela etorriko –ez eta etorri behar ere– abiapuntu genuen



tokira bueltan –toki sostengaezin eta bidegabekora–, gauzak beste era batera egin eta pentsatzeko modu berri batetik etorriko dela eta hori ez dela eroso izango eta ahalegina, eskuzabaltasuna, erantzukizuna, parte-hartzea, malgutasuna eta ikuspegia zabaltzea eskatuko dituela?

Ongi aztertzen badugu, UNESCO Etxearen lana (euskal gizarteak munduko gobernagarritasunaren erronka batzuetan parte har dezan bultzatzen du) inoiz baino beharrezkoagoa da, orain. Hain zuzen ere, orain hitz egin behar dugu, ez soilik zenbakiez eta euroez edo dolarrez, baizik eta printzipioez, balioez, nazioarteko sistema demokratizatzeaz, tokian bertan eta leku guztietan giza eskubideak errespetatzeaz (ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideak barne), gizarte-berrikuntzaz, herritarren erantzukizunaz eta betebeharez, gurutzatutako eta gainjarritako subiranotasun-eremuez, gobernantza-geometria konplexuez eta garapen iraunkor eta giza garapena izenak benetan tresnatzeaz.

Horretan dihardugu, aurten ere. Horren guztiaren gainean hitz egin dugu memoria honetan. Gurea bezalako erakunde txikietatik munduko gobernagarritasunean era aktibo eta eraginkorrean parte har daitekeela erakusten duten adibide onak aurkituko dituzu bertan. Lan horretarako, zure laguntza behar dugu gaur, inoiz baino gehiago. Horregatik, bizi dugun krisi-garai honetan, laguntza eskatzen dizugu, beste askorekin batera, lanean jarraitzeko mundu hobeto, bidezko eta duinagoaren alde. Laguntzeko modu bat bazkide egitea duzu; edo, lehendik bazkide bazara, kuota handitzea. Bai, hain zuzen ere, orain, krisi-garaian.

Erredakzio: UNESCO Etxeko lan-taldea

Produktio editoriala: SRB, S.L.

Edizioa: 2010ko ekaina

Editatzen du: UNESCO Etxea

Isozaki Atea – Bizikidetasun enparantza

Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala

48001 Bilbao

Tfna.: 94 427 64 32

Faxa: 94 427 25 48

Gasteizko egoitza: Angostoko Andra Maria

kalea 5. 01193 Gasteiz

info@unescoetxea.org



UNESCO Etxea
www.unescoetxea.org



-en gaude




Klororik gabe zurituriko %100 paper birziklatuan eta birziklagarrian inprimatua.
Bere erabilera argitalpen honetan honakoa aurreztu da: 2 zuhaitz-mozketa, 830 litro ur-erabilpena, 711 Kilobatio/orduko argi-kontsumoa eta 174 CO₂ kilo-izurtzea.

NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea (GKE) da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduera-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura Publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 125 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXeko ORGANIGRAMA



MISIOA, IKUSPEGIA

MISIOA

UNESCO Etxea nazioarteko bokazioa duen Gobernuz Kanpoko Euskal Erakundea da. Bake-kultura, giza garapen iraunkorra eta tokian tokiko eta mundu osoko giza eskubideak egi bihur daitezen egiten du lan. Horretarako,

- ▶ Nazioarteko prozesu eta ekimenetan aktiboki hartzen du parte;
- ▶ Euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen arteko erlazio eraldatzailea sustatzen du (batez ere UNESCO eta NBE); eta
- ▶ Iritzi eta irizpide propioak ematen ditu, ikerkuntza, eragina, prestakuntza, berrikuntza eta dibulgazioaren bitartez.

IKUSPEGIA

- ▶ UNESCO Etxea erakunde sendoa, ospetsua eta independentea da, errekonozimendua du, eta kalitateirizpidez jarduten du. Erakundearen bazkide eta lagunen taldea zabala eta plurala da. UNESCO Etxearen zuzendaritzabatzordea aktiboa da, eta erakundearen lantalde profesionala, berri, goi-mailakoa, kohesioduna eta sendotua. Misioa betetzeko orduan gizartean lortu duen dimentsioa, garrantzia, proiektzioa eta baliagarritasuna ikusita.
- ▶ UNESCO Etxea erreferentzia dugu EAEn. UNESCO Etxeak nazioarteko maila gorenean egiten du lan bere espezializazio esparruetan eta modu eraginkorrean hartzen du parte munduan erreferentzia eta eragile diren sare eta jokalekuetan.

LAN-TALDEA



Beste proiektu batzuei ekiteko UNESCO Etxea utzi duten gure lagun **Cristina Linaje**, **Josu Sanz** eta **Usune Zuazori** eta bihotz bihotzez arrakasta opa diegu maila pertsonalean zein profesionalean.

SARE ETA ALIANTZA NAGUSIAK

UNESCOREKIN eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- ▶ UNESCOrekiko Harreman Ofizialen Estatusa.
- ▶ Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- ▶ Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kidea
- ▶ UNESCO zentroa nazioartean aintzatetsia.
- ▶ UNESCOrekin Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL) kidea

Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- ▶ UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- ▶ Nazio Batuen Milurteko Kanpaina.
- ▶ Nazio Batuen Europako Eskualde Bulegoa (UNRIC).
- ▶ Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkaritza Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- ▶ Garapenerako Nazio Batuen Programa (PNUD).

...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- ▶ UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- ▶ Nazio Batuen aurrean Estatus Aholku-emalea duten GKE-en Konferentzia (CONGO).
- ▶ Gizarte Zibileko Sareen Munduko Foroa (UBUNTU).
- ▶ Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).
- ▶ CONGDE-Espainiako GKEen Koordinakundea (uraren eta klima aldaketaren taldeak).
- ▶ Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarteen Federazioa.

- ▶ Friburgoko Unibertsitateko Aniztasuna eta Kultur Eskubideen Behatokia
- ▶ Unescocat-Centre UNESCO de Catalunya eta Linguapax institutua.
- ▶ Munduko Landagunea.
- ▶ Cultura de Paz Fundazioa.


...Euskal Herritik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz...

- ▶ Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari eta Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedrak.
- ▶ Euskadiko GKEen Koordinakundea (batzorde orokorra eta eragin politikoa taldea)
- ▶ Giza Eskubideetan Hezitzeko eta Bakearen aldeko Elkarteen Foroa.
- ▶ Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua.
- ▶ Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutua.
- ▶ Erromako Klubeko Atal Espainiarraren Euskal Taldea.
- ▶ Euskaltzaindia.
- ▶ Euskal Fundoa.
- ▶ Innobasque (Zuzendaritza Batzordea - Berrikuntzaren Euskal Sistema Nazioartekotzea).
- ▶ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- ▶ Garapen Bidean.
- ▶ Amalur Fundazioa.

...eta isurpenak konpentsatzen dituen...

Ekitaldi nagusien ospakizunetan eta liburuen argitarapenerako erabilitako paper kontsumoak eta banaketa lanak sortutako berotegi efektuko gasen isurpenak hain zuzen.

UNESCO ETXEKO 19 BEKADUN ETA 2 KONTSULTORE MUNDUAN



PROGRAMAK

UNESCO Etxeak 2009an egin dituen jarduera guztien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

KULTURA ETA HIZKUNTZAK



'Kultura-eskubideen orainaldia eta etorkizuna' jardunaldia. Silvia Escobar, Jaime Marchán eta Rocio Barahonarekin. Abenduaren 4a. Bilbao.

Kultura-eskubideen alde lan sakonagoa egin dugu, eta nazioartean izan diren bi ekimen gogoangarritan lagundu dugu:

Alde batetik, Nazio Batuen Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordearen Kulturaren parte hartzeko eskubideari buruzko txosten orokorra idazten parte hartu dugu; ekarpenak egin ditugu adituen bileretan, Geneva eta Bartzelonan. Txosten orokor berria UNESCO Etxearen bi ekitalditan aurkeztu zen munduan, lehendabizikoz, eta Madrilan eta Bilbon izan ziren ekitaldiok. Han izan ziren Nazio Batuen Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordeko presidente Jaime Marchán eta Giza Eskubideen enbaxadore berezi Silvia Escobar.

Bestalde, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren Giza Eskubideen aditu independente baten agintaritza sortzen parte hartu dugu, Fribourgeko Kultura Eskubideen Behatokiko GKEen Plataformarekin batera.

Halaber, lanean jarraitu dugu honako arlo hauei loturiko proiektuetan: Euskal Herriko ondareari buruzkoak, tokiko industria sortzaileak garatzeari buruzkoak, eta, UPV/EHUko Hizkuntzaren Mundu Ondarea UNESCOren Katedrarekin batera, hizkuntza-aniztasunari buruzkoak.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

GIZA GARAPENERAKO URA PROGRAMA

Euskal gizarte zibilarri eta Ura eta Giza Garapenaren arloan aipagarriak diren eragileei prestakuntza ematen eta gai horren inguruan kontzientzia hartzen laguntzen jarraitu dugu. Nazioarteko programak helarazi dizkiegu ur-hornitzaile eta operadoreei, bai eta administrazio publikoei ere, lotura baitute uraren politikekin eta EAEn garapenerako lankidetzarekin. 'Global WOPs Alliance' UN HABITAT estrategia da programa horietako bat. Lan hori guztia egiteko, hitzarmen bat egin dugu Euskal Fonda Boluntarioen Tokiko Erakundearen Euskal Elkartearekin.

URA Uraren Euskal Agentziaren laguntzarekin, prestakuntza eta dibulgaziozko materiala sortu dugu, eta luze-zabal hedatu da euskal gizartearen.

Martxoan, geuk prestatutako bi ekimen aurkeztu genituen Istanbulko Uraren V. Mundu Foroan: batetik, EAEn egindako kudeaketa hidrikoa aurkeztu genuen (kasu-azterketa gisa jaso zen munduko ur-baliabideen garapenari buruzko NBERen azken txostenean); eta, bestetik, ura eta saneamendua izateko giza eskubidearen gaineko bilera bat egin genuen. Nazioarteko aditu gailenek parte hartu zuten bilera horretan.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

IRAUNKORTASUNA

Bat egin dugu Urdaibairen biosfera-erreserba izendapenaren 25. urteurrenarekin, eta era aktiboan jarraitu dugu lanean UNESCOren Man and the Biosphere (MaB) programan. UPV/EHUko Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCOren Katedrarekin eta Urdaibaiko Erreserbarekin elkartanean, nazioarteko zientzialari eta teknikarien topaketak antolatu ditugu, bai eta Urdaibairen 25. urteurrenari buruzko erakusketa ere. Urtean zehar, EAEko 18 herritan izan da erakusketa.

Iraunkortasunerako Hezkuntzarako Nazio Batuetako Hamarkadaren esparruan, Eskola Agenda 21ean egindako jarduerak aurkeztu ditugu Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCOren Mundu Konferentzian (Eskola AGENDA 21eko Eusko Jauriaritzaren 'Iraunkortasunerako eskolak' programa aintzatetsi zuen Hamarkadako Bulegoak, bikaintasunerako prozesu gisa). Horrez gain, Ingurumenaren biografiak erakusketa aurkeztu dugu UNESCOn.

Halaber, 2009an, lanean jardun dugu klima-aldaketaren arloan, Giza Garapenaren ikuspegitik. Gogoeta eta eztabaida sustatu ditugu gizartearen. Horrez gain, Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeetako (GGKE) eta EAEko toki-administrazio teknikiariak trebatu ditugu, eta ingurumenaren, klima-aldaketaren eta garapenerako lankidetzako giza garapenaren artean dagoen erlazioaren inplikazioetan sakondu dugu.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org



'Klima-aldaketa: garapenerako mehatxua. Garapenerako lankidetzaren eginkizuna, mundu-mailako erronkaren aurrean' prestakuntza-ibilbidea. Ekainaren 1tik 17ra. Bilbao.

BAKE KULTURA



'Bakea, giza eskubide: nazioarteko kodifikazio prozesurantz' Uda ikastaroa. Abuztuaren 17tik-18ra. Donostia.

Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) XXVIII. Udako Ikastaroetan, ikastaro bat antolatu dugu: La paz como un derecho humano: Hacia un proceso de codificación internacional [Bakea, giza eskubide: nazioarteko kodifikazio prozesurantz].

Nazio Batuen Informazio Publikorako Departamentuaren 62. urteko konferentzian parte hartu genuen. Mexiko DF-n egin zuten, lelo honen pean: 'Desarme ahora. Trabajemos por la paz y el desarrollo' [Desarrea, orain. Lan egin dezagun bakearen eta garapenaren alde]. Esparru horretan, lantegi bat antolatu genuen Chicagoko DePaul Unibertsitatearekin batera: 'El papel de la sociedad civil en la construcción de la paz' [Gizarte zibilaren zeregina bakearen eraikuntzan].

AEDIDH elkartearekin batera egin ditugun hainbat ekimen aurkeztu ditugu Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluan, Gizakiaren Bakerako Eskubidearen alde lanean jarraitzeko.

Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza Elkartearen Foroko kide aktibo gara, eta, esparru horretan, hainbat ekimen sortu dira batera egindako lanetik. Besteak beste, giza eskubideen nazioarteko eguna ospatu genuen, eta 'Las caras de la desigualdad hoy. Discriminaciones que no vemos' [Desberdintasunaren aldeak, gaur: ikusten ez ditugun diskriminazioak] izeneko mahai-inguruan parte hartu genuen.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org



UNESCOren Batzar Nagusia. Ura izateko Giza Eskubideari buruzko ekitaldi paraleloa. Urriaren 19an. Paris.

GIZA GARAPENERAKO EGKE PROGRAMA

UNESCO Etxeak giza garapenean eskubideen ikuspegia bertatzea bultzatzen du bere ekintzen bitartez, eta ikuspegi hori erakundeen dinamiketan eta garapenerako lankidetzako askotariko eragileen politika eta jardueretan sar dadin ere sustatzen du. Hori xede hartuta, prestakuntza-jarduerak eta eragitekoak antolatu ditugu Garapen Bidean / Taller para los Derechos Humanos y el Desarrollo elkartearekin batera, eta hainbat mintegitan parte hartu dugu. Zehatzago esanda, arlo horretan lanean dihardugu hezkuntzarako eskubidearen, kultura-eskubideen eta ura izateko giza eskubidearen alde.

2009. urtean, UNESCO Etxeak lagundu du ura izateko giza eskubidea, pixkanaka, aintzatetsi eta gauzatu dadin, eta, horretarako, sustapen-, sentikortze- eta zabaltze-lana egin du, eta politikan ere eragina izan du, bai euskal gizartearen, bai nazioarteko foro eta mintegi estrategikoetan. Aditu independenteak Edateko ura eta saneamendua izateko giza eskubideen betebeharren gainean egindako lana era aktiboan babestu dugu, bai Istanbulko Uraren V. Mundu Foroan, bai Genevako Giza Eskubideen Kontseiluaren 12. bileran.

Ura izateko giza eskubideari buruzko nazioarteko adituen bilera antolatu dugu Parisen, UNESCOren batera, eta UNESCOren eta aditu independentearen arteko lankidetzari bidea erraztu diogu. Bilera horretako ondorioak eta gomendioak baterako argitalpen batean jaso ziren, ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz. Horrez gain, aldi bereko beste ekintza bat antolatu genuen UNESCOren Konferentzia Orokorrean; alegia, erakundearen organo politiko gorenean. Lan hau aurkeztu genuen, eta gaia datozen bi urteetarako antolakuntza-planean sartzea lortu genuen.

Aipatzekoa da, orobat, ura izateko giza eskubidea sustatu dugula, GGKEen Espainiako Koordinakundearen Uraren Taldeko partaide garen aldetik.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

GIZARTE PARTE-HARTZEA ETA SAREAK

UNESCO Etxearen egoitza Izosaki Atera eraman dugu, eta horrek aukera eman die KOOPERA zentroari eta Dokumentazio Zentroari beren informazio-, prestakuntza- eta sentikortze-zerbitzuen kalitatea hobetzeko. 1.750 argibide-eskaera baino gehiago erantzun ditugu, Nazio Batuen Sistemari eta garapenerako lankidetzari buruzkoak, arlo horretan lan egin nahi duten edo boluntario gisa jardun nahi duten pertsonak gidatzea helburu nagusizat hartuta.

Gainera, dokumentu-funts bat kudeatu dugu. Funts horren barruan, hainbat eta hainbat dokumentu daude; besteak beste, 3.300 titulu baino gehiago, aldi behingo 80 argitalpen, zenbait mundu-konferentziari edo goi-bilerari buruzko gaikako dossierak, ikus-entzunezkoak, material didaktikoa, eta NBEko eta UNESCOko agiri ofizialak.

2009an egin dugun prestakuntza-eskaintzan, 285 eskola-ordu baino gehiago eman ditugu bederatzi ikastarotan banatuta, eta 205 lagunek parte hartu dute, guztira.

Eusko Jaurilaritzaren NBE beka-programari esker, hamar pertsona UNESCOren bulegoetan lanean hasi dira, Asiako, Afrikako, Amerikako eta Ozeaniako zazpi herrialdeetan, eta bederatzi lagunek beka luzatu dute, bigarren urtea egiteko. EAEn UNESCOri Atxikitako Eskolen Sarea koordinatzeko egiten dugun lanean, bi euskal zentrok Europako Kontseiluaren Monumentuen gaineko Nazioarteko Argazki Esperientzian (EFIM) izan duten parte-hartzea kudeatu dugu. Lau euskal ikaslek sari bana jaso zuten beren inguruko kultura-ondareari egindako argazkiengatik, eta Estrasburgoko nazioarteko gazteen topaketetan parte hartu zuten. Ekitaldi hartan, Europako Kontseilua ikusteko eta ezagutzeko aukera izan zuten.

Euskadiko elkarte-sarearekin dugun harremanaren erakusgarri da GGKEen Euskadiko Koordinakundearen eta Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza Elkartearen Foroan dugun parte-hartzean, biotako Gobernu Batzordeko kide baikara. Gainerako elkarteekin, klubekin eta UNESCO zentroekin dugun harremana ere sendotu egin dugu UNESCOren Sare Zibilen I. Nazioarteko Topaketan parte hartuz geroztik.

Informazio gehiago: www.unescoetxea.org

OHOREZKO BAZKIDEEN BATZORDEAREN BIURTEKO III. TOPAKETA ETA UNESCO ETXEKO EGOITZA BERRIAREN INAUGURAZIOA

2009ko irailaren 21ean, Bakearen Nazioarteko Egunean, Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordearen 3. Topaketa dela bide, UNESCO Etxeak, Gaur egungo nazioarteko krisi ekonomiko eta soziala dela eta, gizarte zibilaren eginkizunari buruzko Adierazpena 'Aldaketa-garaia, aukera-garaia. Gizarte zibilaren parte-hartzea multilateralismo berrian' aurkeztu zuen.

Egun horretan bertan UNESCO Etxeko egoitza berriaren inaugurazioa izan zen, Bizikidetasun Enparantzan (Isozaki Atea, Bilbao) Iñaki Azkuna alkate jaunaren parte-hartzearekin.

Jardunaldi horretan Novia Salcedo Fundazioaren Zuzendaria den eta UNESCO Etxeko Zuzendari Batzordearen partaide ohia izaniko Begoña Etxebarriari omenaldia egin zitzaion.

Egunari amaiera emateko ekitaldi berezia izan genuen, Federico Mayor Zaragozak Bilboko Berreginen Museoan emandako hitzaldia, hain zuzen, 'Orain eraiki daiteke beste era bateko mundu bat: Giza eskubideak XXI. mendean' titulupean.



2009KO ARGITALPENAK

Catarata argitaletxeko 'Ensayos UNESCO Etxea' bilduman:
www.catarata.org web gunean eskuragarriak

- **Declaración sobre los derechos de los pueblos indígenas. Hacia un mundo intercultural y sostenible.**
- **Hacia nuevas solidaridades. Diez diálogos sobre cooperación al desarrollo.**

Nazio Batuen eta UNESCOren dokumentuen gaztelaniazko eta euskarazko itzulpenak:

- **Giza Eskubideak. Nazioarteko tresna nagusiak. 2009ko urtarrilaren 31ko egoera.**
- **Giza Garapenari buruzko Txostena 2009. Laburpena. Oztupoak gairidituz: giza mugikortasuna eta garapena.**
- **Klima-aldaketaren kontrako borroka: elkartasuna, mundu zatituan. Giza Garapenari buruzko Nazio Batuen 2007/2008 Txostena, gazteek laburtuta.**

Nazio Batuei eta UNESCOri buruzko koaderno didaktikoen bilduman:

- **Hitz egin dezagun Lurraz.**
- **Ondare biziak hitz egidazu.**

Berezko argitalpenak:

- **Aldaketa klimatikoa eta garapenerako lankidetzak. Kompromisak eta aukerak elkartasunaren bidetik.**
- **Hacia la paz desde los derechos humanos. Reflexiones sobre el derecho humano a la paz.**
- **Iraunkortasun hezkuntzarako eskuliburua.**
- **Resultado de la reunión de expertos internacionales sobre el derecho humano al agua. París, 7 y 8 de julio de 2009.**

www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak



DATU EKONOMIKOAK

UNESCO Etxeak jardura bakoitzari buruzko informazio argia eta zorroztza ematen dio gizarteari. Gure kontuak Gassó Auditores, SL-k ikuskatzen ditu urtero. Bazkide edo erakunde laguntzaileen batek gure finantza egoerari buruzko datu gehiago jakin nahi izango balitu, kontuen ikuskaritzaren txostenak eskuratzeko aukera izango du.

UNESCO Etxeak aurten Bakearen Kultura eta Giza Eskubideen alde lan egiten lagundu dioten enpresei bere esker ona zabaldu nahi die:



Sarrera pribatuen eta publikoen jatorria

2009ko Sarrerak, Guztira	1.054.507,74	
Ekarpen Pribatuak	140.134,95	%13,2
Bazkideak	9.106	%0,86
Erakunde Pribatuak	131.028,95	%12,42
Ekarpen Publikoak	914.372,79	%86,8
Eusko Jaurlaritza*	700.787,36	%66,50
Bizkaiko Foru Aldundia	93.410	%8,85
Arabako Foru Aldundia	18.000	%1,7
Udalak	57.882,28	%5,48
Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioa	20.000	%2,18
UNESCO	9.000	%0,85
Beste sarrera batzuk	12.293,15	%1,16

*Eusko Jaurlaritza:

Enplegu eta Gizarte Gaietako saila %61; Ingurumen eta Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza saila %22; Justizia eta Herri Administrazio saila %3; Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia %8; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila %6.

Gastua programaz programa

2009KO GASTUAK, GUZTIRA	1.152.164,41	
Gizarte partehartzea eta sareak proiektuak	135.173,87	%11,7
UNESCO Bekak	246.441,57	%21,40
Giza Eskubide proiektuak	132.695,58	%11,51
Iraunkortasuna proiektuak	300.238	%26,10
Kultura eta hizkuntzak proiektuak	88.833,86	%7,71
Nazioarteko Harremanen proiektuak	80.415,32	%6,97
Kudeaketa orokorra	168.366,21	%14,61

2009ko egoera balatzea

Aktiboa	2009	
A) Aktibo ez zirkulatzailea	244.828,27	
II. Ibilgetu materialak	244.828,27	
B) Aktibo zirkulatzailea	1.233.253,07	
Aktiboa guztia	1.478.081,34	

Pasiboa	2009	
A) Ondare garbia	273.428,10	
A-1) Funtz propioak	36.650,02	
C) Pasibo zirkulatzailea	1.204.653,24	
Ondare garbia eta pasiboa guztia	1.478.081,34	

2009ko Auditoriaren txostena

